

OROITZENE AEK EUSKALTEGIA

Lezoko herrian bereuskalduntze lanetan duela urte asko hasi ginen. Hamasei urte baino gehiago pasa dira gau eskola moduko batetik hasi eta gaur egun daukagun euskaltegia lortu arte. Urte hauetan mota guztietako zailtasunak gainditu behar izan ditugu: lokal txikiak eta ezegokiak, diru laguntzarik ez, e.a. Baina Lezoko herriari esker alfabetatzeko eta euskalduntzeko bide egokiak jarri ahal izan dira, eta horrela iritsi gara gaur egun gauden egoerara, hau da, egokia den lokal berria, AEK eta udaletxearen arteko hitzarmena,...

Bestalde urtetan zehar ikaslego kopurua gorantz joan da, 91-92 ikasturtean ia 100 lezotar euskalduntzen eta alfabetatzen ihardun dutelarik (alfabetatze taldeak, gurasoen trasmisio taldeak).

Hau horrela izanik, Oroitzene AEK euskaltegian giro paregabea egon da bai klaseetako lan dinamikari dagokionean (behe urratsetatik goi urratsetara sortu ziren taldeen arteko harremanak) eta bai euskaltegiko kideek euskal kultura eta gizartearekiko izan duten loturari dagokionean. Hildo honetatik ikasturtean zehar hainbat eta hainbat ekintza burutu ditugu:

— Gai desberdinen inguruan egin ditugu hitzaldiak: autobideari buruz: telebistan filmeen, dokumentalen eta abarren euskarazko bikoizketari buruz; bertso eskolari buruz; Lezoko eta Euskal Herriko sorginkerari buruz; e.a.

— Euskal Herriko herriak eta ohiturak ezagutzea, honetarako irtenaldiak egin ditugularik; Zizurkil, Zugarramurdi, Zuberoa, e.a.

— Urtean zehar gure herrian ohizkoak diren ekintzetan parte hartzen du-



IZAN EUSKALDUN !!

gu: Sto. Tomasak, gabonak, ihauterriak,...

— AEK-k euskararen alde antolatzen dituen AEK egunean, Korrikan, AEKantuzen, AEKanpadan, AEK jiran eta abarretan parte hartzen dugu.

Guzti honen helburua euskaltegian euskara ikasten ari den neurrian bere familian, koadrilan, ingurunean euskara erabiltzea da. Hitz batean esanda, gure helburua euskaraz bizitzea da hau lortzeko AEK-k egiten duen lanaz aparte herriaren parte hartzea eta inplikazioa behar beharrezkoa da.

92-93 ikasturtean Lezo euskalduntzearen alde jokatu nahi baduzu, aukera ederra duzu horretarako OROITZENE AEK euskaltegian euskara ikasteko.

Urte bat betetzeak indarrak eman dizkigu aurrera jarraitzeko eta hau gutxi balitz aurten urtebetetzearekin batera Lezon AEK EGUNA 92 ospatuko dugu. AEKk urtero Euskal Herriko herriren batean antolatzen du eta bertara euskaltzale guztiak, zahar eta gazte, gonbidaturik daude. Hau dela eta herrian batzorde bat sortu dugu honek eskatzen dituen lan guztiak aurrera eramateko. Batzorde honetan herriko sektore guztietako jendea ari da lanean, gazte eta heldu, koadrilak, elkarteak, auzo elkar-teak, ... Zu zeu bertan egon zintezke hala nahi bazenu, honetarako gurekin harremanetan jartzea besterik ez duzu.

OROITZENE SORGINA